


Merkatuaren segmentazioa egin ahal izateko bi faktore dira kontuan hartzeko garrantzitsuenak: eremu geografikoa eta erakundearen lan-eremua zein hartzaileen profila. Eremu hauek zehaztea ezinbestekoa izango zaigu gure erakundearen nondik norakoak zehazteko.

Segmentazio kasuan Durangaldera mugatzea da onena, eskualde mailan arituko gara, eta negozioa ondo badoa inguruko eskualdeetara joatea ere erabaki dezakegulako, baita probintzia edo EAE mailan jardutea ere. Durangaldearen baitan honako herri hauek sartzen dira: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar eta Zornotza. Zerbitzua euskaraz zein gazteleraz emateko aukera emango digu.

Eskola eremura mugatuko da, HH eta LHko tarteko irakasle edo hezitzaile profila dutenei batez ere (2-12) urte bitartean dauzkaten ikasleak dauzkaten hezitzaileak. Hartzaile profiilaren adin tartea ezinbestekoa da formakuntza bat ematea, gero eta adin nagusiagoa eduki esku-hartze eraginkor bat osatzea zailagoa izango delako. Bertan, aniztasun funtzional zentsoriala, motorea eta mentala daukaten kolektiboekin esku hartuko dugu. Zerbitzua Ikastola kontzertatuetara eskainiko dugu, bertan batzuk ikastolak dira eta beste batzuk kristau eskolak.

Durangaldeko eskola kopurua:



Etorkizun hurrun batean, proiektuak esperotako fruituak ematen baditu, eremu geografikoa zabaltzeaz gain, gustatuko litzaiguke institutuei eta ostalaritzako langileei zuzenduta egotea ere, beraiek ere formakuntza eta jakintza batzuk jakitea kolektibo honi begira, bezero-segmentu batzuen bezala bihurtuz.